

Aldaketa garaian bizi garen sentsazioa adierazi nahi nuen. Orain artekoak ez du balio, eta geroan ez dakigu zer gertatuko den. Sarritan, hainbeste zarataren eta argiren inguruan, burua itzali eta aurkitzeko beharra izaten dut. *Offekin* itzaltzen naiz eta *Onekin* piztu. On euskaraz ona izaki. Horrek guztiak jokoa eman zidan.

Zeri erantzuten diote liburuen ideiak eta formak?

Liburua osatzean tira egin diot nire alde ilunari. Egungo gizarte modernoan jendea nola ikusten dudana adierazi nahi izan dut nik neuk. Askatasunaren argi-ilunak ekarri nahi izan ditut. Formari dagokionez, ez dut tradizioarekin hautsi, baina nekatua naiz tradizioarekin. Ondo dago tradizioa, babesa delako, baina hortik askatu naiz. Emakume heldua naiz, neure mugak ezagutzen ditut, nire bertuteak ere bai. Nahi dudana aukeratzeko gai naiz eta horrekin jokatzeko hasia.

Nobela deituta ere, liburuan poesia ere badago, eta ipuinak. Genero berria ote?

Testuok hiper-laburrak deitutako generoan sartu daitezke, oso ezagunak Hego Amerikan. Idaztean motzean jokatu nahi nuen, motzean aritzeak eskaintzen duen jokoa erabiliz. Esan nahi nuena, esan gabe adierazi nahi nuen, irakurleak berak testua osatzea. Baina ez nuen egitura zehatz bat erabili nahi, aske jokatu nahi nuen: izenburuaren asmakizun puntutik hasi eta amaieran kolpea jo. Izenburuaren eta bukaera indartsuen jokoa erabili dut.

"Itxaropen hitzek politikoen ahoetara egin dute jausi eta egunerokoak nekea du abizen" gatzigatu diguzu etxeko sarreran.

Hitzekin jokatzeko duzu eta esaten diozu zure buruari: "Hori adierazi nahi duzu, baina zenbat bider erabili duzu hitz hori?". Beraz, egoerari buelta eman nahi nion, trabak kendu. Ahalik eta garbien mezuak eman. Nahiz batzuetan errebueltaka aritu naizen. Libre jokatzeko elkarrizketa txikiak ekarri dizkit, ipuin txiki-txikiak, aforismoak, epigrafeak. Mezuak zuzenak dira baina metafora bidez helaraziak. Mezu askok, zuzenean esanda, indarra galtzen dute.

Eraiki duzu etxea hartara.

Bai, baina ateak zabalik utziz.

Ez zara bakarrik eraikinean, nahiz eta munduan gero eta urrutiago bizi garen elkarrengandik!

Etxea mundua da. Hor nabil, sartu eta irten. Etxebizitzaz etxebizitza dabilen

Etxean bera ere dabil

"Nondik nabilen eta nora noan azaldu dut liburuan. Kontatu dudana asmatua izan zitekeen, baina ez, ni ere hor nago, liburuan. Orain beste leku batean nago, ez dakit zer egingo dudana aurrerantzean. Bakean bizi nahi dut eta eraiki. Berdin zait asko edo gutxi, egiten dudanak nire barrua berotzea nahi dut".

bidaiari imajinatu dut nire burua, leku batzuetan denbora gehiagoz geratzen naiz. Batzuetan, ez bakarrik bizilagunak behatu, haien egitekoak egiten ditut haiek nolakoak diren ezagutzeko. Bestetxuetan, modu neutroan, ikusi dudana kontatzen dut. Pertsonen artean badaude lagunak, baita senideak ere. Eta ezezagunak... zenbat eta gorago joan askatasun bide horretan, espirituekin ere aritu naiz. Munduan ez dago askatasunik eta liburuaren bitartez askatasuna eraikitzen aritu naiz. Askatasuna bilatze horretan zeruarekin bat egiten dut. Nire tokia aurkitu dut. Sormena, utopia eta ametsa behar ditut. Baina ez naiz bakarrik munduan, beraz sortzen ari diren pertsonen eraiki behar dut. Horren aldarrikapena ere badago liburuan.

Garajetik hasi zara, zomorroak lagun.

Gizakiek azken bilera egin dute eta laguntza eskatu diete zomorroei. Finean gizakiok ere zomorroak bihurtuko baikara. Hor dago jokoa, zein da gizakia eta zein zomorroa? Pertsonaia ugari osatu dut eta

"Utopiaren, ametsaren alde egin dut. Parean ikusten dugunaz harago begiratzen jarri behar dugu, gauza berriak imajinatzeko eta eraikitzeko".



Haur eta gazteen irakurketaz

"Euskaraz umeek irakurtzen dute. 11 urtera arte, euskaraz badago zer irakurria, asko. Eskolak laguntzen ditu liburuak ateratzen eta merkatua mantentzen. Eskolak bideratutako irakurketa da. Liburutegian ere badabilta, irakurri... irakurtzen dute, baina landu gutxiago. Gazte garaian, gehienek, gustuz, erdarara jotzen dute. DBHn irakurketa bultzatzen da, eta zenbat eta orri gehiago hobeto. Interneten agertzen diren sagak, telebistatik zabaltzen dena eta lagunek irakurtzen dutena: *bestsellerrak*. Demagun, nire alabari 'poesia irakurri' esaten diot eta 'hori eskolan emango digute' esaten dit. Ipuinak ere ez dituzte nahi. Motzak dira, baina asko, eta denak aipatzea lan handia da haientzat. Hobe istorio bakarra. Euskal gazteak beste imajinario batean daude".

denei bizia eman diet, baita gauzei eta espirituei ere. Izena duen guztiak bizia du. Baserri giroko kulturatik heldu zait hori. Txikitatik jasotako ezaugarri horiek hartu ditut eta ipuin giroko aldeetan agertu. Fikziora salto egite horrek errealitatea transgreditzeko jokoak ematen zidan. Bestela, oso... oso argazki errealista atera zitekeen.

Horien guztien adibide batzuk hartuko ditugu hizpide: (H)iriologoa testua.

(H)iriologoa hiriaren erretratu bat egin nahi nuen. XXI. mendean, urbanoa deitzen dugun hirian, zarata besterik ez dago, etengabeko mugimendua eta "uuuuuu" hori. Batzuetan aukera bakarra etxeko atea ixtea da, zure burua itzali beharra daukazu. Testuan, Ikearen "Etxea errepublika da" propaganda mezuaren aurrean babes premia aldarrikatu dut, zibilizazio postmoderno honetatik babesteko. Mugimendu zoro honek beronek autista puntu bat sorrarazten duela adierazi dut.

Udazken (ko)loreak.

Berez etorri zitzaidan. Euskalduna naiz. Entzun eta irakurri egiten dut gurean gertatzen dena. Eta hitzak ia beti berberak dira: euskal gatazka, *la cosa* edo ezin izendatua delakoa. Izena beti bera, baina aurpegi asko dituena. Alderdi hori ukitu nahi nuen, familiaren aldea. Askatasun faltan diren senideak etxean daude. Hauek, senidea kartzelan dutela, aurre egin behar diote bizitzari, hamar, hoge edo hogeitamar urtez. Horien bizimodua nire erara deskribatu dut. Askatasunaren alde egiteagatik ordaintzen den prezioa ikusi dut familian. Askatasunaren alde egiteak dakartzan alde argi eta ilunak: umeak kartzelan dagoen aitari eskutik heltzen dio. Umeak aita maite

du, baina aske nahi du: *Off-On*. Zer dago garbi zer ilun? Zer den on edo txar? Zilegi da bide hori aukeratzea, baina gauzak ez direla ez txuri ez beltzak adierazi dut.

Gabon zahar gaua.

Garraztasuna dago hor... buaf! Gure mundua hori ere bada! Gure garaikook bizi izan dugun mundua badoa eta ezin diogu heldu. Zaharren, gurasoen, gazteen eta haurren begiradak azaldu ditut. Izan daitezke bestelakoak noski, baina niri etxe honetan ikusi dudana horrela atera zait. Ziur aski, neuk ez ditudalako egungo Gabonak gogoko. Familiarekin egotea maite dut, baina gaur egun batez ere egutegiak markatutako jaia da, dekretuzkoa. Jaia elkartasuna sortzen duena da. Argiz eta pozez gainezka egotea ondo da, baina zer sentitzen dugu? Ba al dago benetako bizi-tzarik Gabonetan?

Ikusezinak eta Hiritik hara testuak... Izar bidaiaia dira azken hauek

Ikusezinak delakoan Tene Mujika, Katalina Elizegi, Errose Bustinza edota Bixenta Mogel azaldu ditut. Berauek aipatzean erabat liberatua geratu naiz. Ez euskal nazionalistak edo idazleak zirelako. Egungo emakumeen modura jarri ditut. Interneten ikasten hasiak, e-mailen jokoan. Mundu moderno eman nahi izan diet, ez heroi moduan hartu, gure kausaren alde aritu zirelako. Agian, bestelako gauzak ere egin nahi izan zituzten. Eguneroko zereginetan jarri ditut, ganbaran. Kultura herrikoitik natorrenez, ikusten ditugunak eta ez ditugunak erabiltzeko gogoan neukan. Maite ditudan pertsonak hor kokatu ditut. Batez ere, non-bait daudela sinestu nahi dudalako. Horregatik jarri ditut Mikel Laboa eta Jorge Oteiza ere, edota nire aita, musikari zena. *Ikusezinak* diren horiek ganbarara igo dira, askatzen joan dira, eta haiekin askatzen noa ni ere.

Esperantzari leihoa ireki ez ezik, etxe bat, hiri bat, mundu bat eskaini dizkiozu esperantzari.

Bai, baina ez dago bukatuta. Irekita dago. Esperantzatsua izan daiteke, dagoenaz gain guk egiten duguna garrantzizkoa dela sinesten badugu. Zerua ere horregatik dago. Utopiaren, ametsaren alde egin dut. Guk egiten ditugu itzala eta argia. Parean ikusten dugunaz harago begiratzen jarri behar dugu, gauza berriak imajinatzeko eta eraikitzeko. ■

"Kultura herrikoitik natorrenez, ikusten ditugunak eta ez ditugunak erabiltzeko gogoan neukan. Maite ditudan pertsonak hor kokatu ditut"